

Galdera

Nola esaten da "de perdidos al río " euskaraz?

Erantzuna

Behin galduta egonez gero, galdu dezagun guztia

<https://cvc.cervantes.es/lengua/refranero/Ficha.aspx?Par=58474&Lng=7>

1/ Kaltzakorta da esamoldearen aita, eta luze eta zabal bilatu ondoren, ez dugu aurkitu esaera horren parekorik, [CVC Refranero Multilingüe](#) esaera zaharren biltegian jasotzen duena baizik.

3/ Zuzeu aldizkarian argitaratutako iritzi artikulu baten arabera (<https://zuzeu.eus/euskal-herria/lopez/>), gaztelaniaz *de perdidos al río* esan ohi da "behin galdu duzula dakizula, galbiderako abiadura areagotzen duzunean, atzera egin ordez".

2/ Beraz, edozein kasutan ere, gure iritzian, norberak esango lukeen moduan ere proposatu liteke, testuinguru egokian eta egoki pertsonalizaturik; adibidez:

Ausartu nintzen; azken finean, zer galdurik ez nuen eta.

3/ Esamolde gehiago aurkitzeko, ikusi honako hauek, bestak beste:

[Gotzon Garate Atsotitzak webgunea](#)

[Gaztelaniazko esamoldeak euskaraz \(Aizu, 205-228 zk., 1998/01-1999/01\) - euskaljakintza](#)

4/ Beste hizkuntza batzuetan. Ikusi: - [CVC. Refranero Multilingüe. Ficha: De perdidos, al río. \(cervantes.es\)](#)

[Frantsesez](#), Quand on ne peut plus reculer, Il faut savoir sauter

[Ingelesez](#), One might as well be hanged for a sheep as for a lamb

[Italiera](#), Rutta pi rutta, rumpèmula tutta

[Katalanez](#), Perdut per perdut, m'agafo allà on puc

[Portugesez](#), Perdido por cem, perdido por mil

5/ Itzulpen "graziosoak" ere ez ditugu erabat baztertzen, lagunarteko hitzez hitzeko kalko lotsagabeak, alegia:

* *From lost to the river* (sona handiko liburua argitaratu zuen Ignacio Ochoak 1995ean).

* *You have a child very monkey.*



...

